

Euskara eta mundu juridikoa

Iñigo Urrutia Libarona

Bizkaiko abokatuen kolegioko Euskara Batzordearen lana: atzera begira

Badira hamar bat urte Bizkaiko Abokatuen Kolegioko Euskara Batzordeak lanean diharduela. Ez da gutxi izan urte hauetan egindakoa, ezta gutxiago oraindik egin beharrekoa ere. Lerro labur hauetan Batzordeak izandako kezkak, zalantzak eta horien hausnartzetik sortutako eginbideak laburbiltzea ez da gauza erraza. Ez ditut, beraz, guztiak aipatuko eta barka egidazue horietatik zenbait airean uzten baditut, ildo nagusi batzuk azpimarratzera mugatuko naiz eta.

Lehen-lehenetik Batzordearen xedea honakoa izan da, abokatu euskaldunok gure lanbidean aurkitzen ditugun oztopo linguistikoak, bai arazo terminologikoak zein euskararen statusaren aldetik sortutakoak mahaigaineratzeko eta elkarkonpontzeko gune izatea. Hastapenetan arazo zehatzen gainean eztabaidatzen zen, adibidez, nola esan genezake "litisconsorcio-pasivo necesario" euskaraz? edo hango edo besteko Epaitetik Magistruak ez dizkit onartu euskarazko demanda idazkiak, zer egin genezake?... Urteak joan, urteak etorri, arazo ugari horiek metatuz joaten ziren neurrian Batzordearen egitekoak ugaltzen eta finkatuz joan dira. Arazo partikular horiei irtenbide partikularra bilatzeaz gain, bistan ageri zitzaigun mundu juridikoan Plangintza Orokor baten eza. Plangintzaren gorabeherak oso landuta ez bagenituen ere, bi esparru desberdinetara mugatu behar zuela uste izan genuen: *Corpusa* batetik eta *statusa* bestetik. Goazen horiek banan-banan aztertzea.

Euskarazko corpus juridiko estandarizatuaren gabezia, euskal abokatuek (eta orokorrean juristek ere) izan dugun eta gaur egun dugun arazorik larrienetarikoa da. Lexiko iturri bila nora jo?, euskarazko estilo juridiko propioak zein bide hartu behar du? gaztelarazko estiko zaharkitu eta ulergaitzarena agian?, euskarak bi zuzenbide nagusi (espainiarra eta frantziarra) bereganatu behar ditu eta horren ondorioz euskarazko

termino juridiko bakoitzari zein karga juridikoa eman behar diogu, frantsesa edo espainola?, beraz, euskarazko terminologia juridikoaren finkatze bidean, zein zuzenbide alboratu behar da, frantsesa?... Pilatuz joan daitezkeen galdera guzti hauei Abokatuen Euskara Batzordeak ez dizkie erantzunik bilatu, baina bai mahaigaineratu ordea. Abokatuak eguneroko ihardunean euskarazko terminologia juridikoaren gabeziak sortzen dizkigun arazoei konponbidea bilatu nahian, Batzordeak bi ikastaro antolatu ziren: 1990.ean lehena eta 1992.ean bigarrena.

Lehena oso aprobetxagarria izan bazen ere, bigarrena ekarri nahiko nuke gogora, berau izan baitzen zenbait ildo nagusi finkatu zituen. Bigarren honetan, jurista, itzultzaile, Unibertsitate irakasle eta Herri Erakundeetako eta Administrazioetako kideak bildu genituen eta guztien erizpideak batera bilduz zenbait kontsentsu lortu zen, gutxi batzuk izan baziren ere ez horregatik interes gutxiagokoak. Zuzenbidea sistema oso eta konplexutzat hartua zen, eta ez ikuspegi bakar batetik ikertu (administrazioaren ikuspegitik kasurako), arlo desberdinetako (zibil, penal, administratibo, kontentzioso, laborala,...) formulario eta terminoak aztertu baikenituen eta guztiekin ikuspegi osoa lortzen saiatu ginen. Bildutako material, formulario eta eritziekin Bizkaiko Abokatuen Kolegioak, aurki, liburuxka bat argitaratzeko gogoia du.

Euskararen statusaz ere arduratu egin gara orainartekoan. Ez dugu ahaztu behar mundu juridikoaren atalik garrantzitsuenetarikoa den Epailaritzan (prozedura judizialean alegia), administrazioa izanik ere, administrazio berezi bat den neurrian (Estatuko hirugarren boterea) ez direla euskararen koofizialtasunaren arau nagusiak bete behar. Hizkuntzen erabilera organu judizialean Botere Judizialaren Lege Organikoko (LOJP) 231. artikuluan xedatuta dago eta aipatutako legeak ez ditu Euskararen Legeak dituen helburu berdinak, ezta gutxiagorik ere. Hizkuntz koofizialtasunaren eraginak ez dira arlo honetan gainerako administrazioetan diren bezalakoak, Epaille eta Magistratuek baitute hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta ez hiritarrak Administrazio Publikoetan bezala. Horrek ez du esan nahi Administrazio Judizialean hiritarrak eskubiderik ez duenik, baina bai ordea, hiritarrak eskubide gutxiago dituela.

Arazo horrek aspaldidanik arduratu gaitu eta hainbat txosten eta elkarrizketa izan ditugu Magistraturako zenbait bururekin (Gipuzkoako Auzitegi Probintzialeko, Bizkaiko Auzitegi Probintzialeko, eta Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Presidenteekin) nahiz eta zenbait kasutan harremanak oso lagunartekoak izan ez diren. Izandako kontaktu eta elkarrizketa horietatik nik neronek ateratako ondorioak bi hitzetan laburtzerik badagoela uste dut, hots Administrazio Judizialeko kideei euskararen ofizialtasunak sortzen dizkien egoera juridiko berriak (bete behar berriak), berriak diren neurrian euren egoerei deserosotasunak sortzen dizkiete, eta nolabait ere dituzten posizioen galera bat, ahaz ez dezagun Epailaritzaren definizioz oso kontserbadorea dela (salbuespenak salbuespen) eta hori kontutan hartuz ondorioak edozeinek ateratzeko modukoak bihurtzen dira.

Eguneroko ihardunak frogatzen ditu, eta Euskara Batzordearen aktak horren lekuko (froga dokumental gisa) dira, Epailaritzak ardura gehiago jartzen duela berorien egoera eta erosotasunak zaintzen eta gordetzen, euskal hiritarren hizkuntz eskubideak eta hizkuntz eskubide kolektiboak babesten baino.

Dena dela, aurrerapausu batzuk etor daitezke Botere Judizialeko pertsonalari buruzko kompetentziak Elkarte Autonomoek jasotzen dituztenean; puntu honi buruz luzeago hitz egingo dugun arren, aurreratu nahi nuke euskal hiritarren hizkuntz eskubideak zaintzea eta Botere Judizialaren euskalduntzea ez direla eskumen horren jabetzarekin automatikoki etorriko, Plangintza serio eta orokor bat gabe, jai dugu eta.

Arazoak arazo, euskarazko tramitazio juridikoak gorakada izugarria izan dute azken urteotan; puntu honetan Auzitegi Nagusiko Itzulpen Zerbitzuak urtero argitaratzen duen txostenari erreferentzia egingo diot. Auzitegi Nagusiko Itzulpen Zerbitzua, lau itzultzailez osatuta dago, bi Bizkaian, eta bana Gipuzkoan eta Araban; Justizia Administrazioak Zerbitzu honen bitartez burutzen ditu euskarazko iharduera guztiak, ardurua gehiagorik jarri gabe. Zerbitzu honek argitaraturiko azken memoriari erreferentzia egingo diogu.

Hona hemen zenbait datu adierazgarri:

| <i>Urte judiziala</i> | <i>Euskaraz tramitaturiko kasuak</i> |
|-----------------------|--------------------------------------|
| 1990 | 75 |
| 1992 | 197 |

Gorakada, %285,50koa izan da. Kopuru hori oso adierazgarria izanik ere, hiru faktore aztertu nahi nituzke gorakadaren eraginak neurtzeko: harreman juridiko batetan zenbait subjektuk parte hartzen dute, eta horietatik bakoitzak zeresan handia du euskararen erabilpenari buruzkoetan:

*Administrazio Judizialeko kideei dagokienez (Fiskalak, Idazkariak, Ofizialak,... Epai-le eta Magistratuekin batera hartzen ditut): Bizkaian behintzat oso gutxi ezagutzen dute euskara: fiskalen batek, Epai-le gutxi batzuek (behin-behineko 2 euskaldunak dira, eta titular batzuek euskarazko klaseak hartzen dituzte), eta Idazkari oso gutxi.

*Abokatu eta Prokuradoreen artean euskararen ezagutza goraka doa. Horrela Bizkaiko Abokatuen Kolegioan kopuru hauek ditugu: 1987. urtean kolegiatuen artean %8,9ak euskalduntzat jotzen zuen bere burua; 1992ean berriz %23ak. Zuzenbide Fakultateetan 1992-93 kurtsoan ikasketak euskaraz burutzen dituen ikaslegoa gutxi gora behera %18koa da. Horrek ez du esaterik nahi abokatu euskaldun guztiak sistematikoki euskaraz aritzen direnik, (nahiz eta Kolegioko Euskara Batzordeko kideek horren aldeko konpromezua hartuta dugun), baina ezagutzaren kopurua kontutan hartzekoa dela bai behinik-behin.

*Hiritarrarekin (edo Administrazio demandatu edo demandantearekin) gauza be-zeziak gertatzen dira, izan ere nahiz eta bezeroa euskalduna izan nahiago izaten du bere dibortzioa eta auto istripuagatiko juizioa erdaraz eramatea. Elementu psikologikoak eragin handia du. Datuei bagagozkie esan behar da 1986ko Erroldako datuak mahaigainean ditudala, euskaldun guztietatik euskaraz ongi mintzatzen eta idazten dakitenak %52,34 bat dira, Bizkaian %41,99. Beraz, euskararen ezagutza batetik eta elementu psikologikoa bestetik eragin handia du euskarazko tramitazio juridiko eta judizialean. Euskara erabiltzeko motibazioa beharrezkoa da, eta horrekin batera erabakiak hartzea bai pertsonalak zein kolektiboak (goraipagarritzat jotzen dut Udalerri Euskaldunek Justizia Administrazioan euskara erabiltzearen alde hartutako erabakia-

ren egikaritze praktikoa, eta beren erabakiekin Justizia Administrazioan izan duten eragin biderkatzaileak).

Elementu psikologikoaz hitz egin dugu, baina elementu hori psikologikoa baino elementu objetibo bihurtzen dela esatera ausartuko nintzateke. Nire lanbidean kasu mordoska bat eraman ditut, horietatik euskaraz gehienak, eta euskaraz eraman ditudanak gazteleraz eraman ditudanekin alderatuz edo nire lankideak eraman dituztenekin alderatuz esango nuke, auzia euskaraz eramateagatik kasu bakarra eraman beharrean bi kasu eramatera eraldatzen dela. Fondoko auzia batetik eta euskararen erabilpenari buruzkoa bestetik. Irabaziz gero ez duzu kasu bakarra irabazten bi kasu baino, eta galbidea etor daiteke bai batetik, bestetik edo biengatik. Dena dela ez nuke honekin inor desanimatu nahi, kontrakoa baizik, euskarak erabileraren poderioz eta ez bestegatik tokirik bilatuko baitu Auzitegietaiko ihardunetan.

Euskaldungoak errotuta duen faktore hori aldarazi nahian Abokatuen Euskara Batzordeak kanpaina bati ekin zion "abokatu ere euskaraz" lemapean (1992ko irailean), hiritarra justizi administrazioan euskara erabil dezan, hori baita euskararen normalkuntza lortzeko eginbide nagusienetarikoa, erabilpenarena alegia.

Batzordeak, juristoi hain beharrezkoa zaigun lege eta xedapen juridikoen itzulpengintza bultzatu egin du. Euskara Batzordeak euskal abokatuak beharrezko ditugun tresnak eskuratzeko duen helburuari jarraiki, oinarrizko lege testuen euskaratzeko ardura aspaldidanik erakutsi du, 1992ean Lan prozedurari buruzko Lege berriaren itzulpena argitaratu zuen, eta Deustuko Unibertsitateko Itzulpengintza Masterreko zuzendaritzarekin batera, zenbait ahozko itunetara heldu izan da, lehentasun batzuk zehaztuz eta diru baliabideak eskainiz.

Urtero, Euskara Batzordeak mahainguruak eta euskal liburu juridikoen aurkezpenak antolatzen ditu. Mahainguruarekin Batzordeak dituen kezkak gizarteratzea lortu nahi du, "euskararen erabilpena justizi administrazioan" (1990) non Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusia, Auzitegi Nagusiko Lehendakaritza, Justizi Administrazioko funtzionarien ordezkariak, eta euskara Batzordea parte hartu baitzuten, edota "Hizkuntz askatasunak sub iudice" (1992ko Durangoko Azokan) non iparraldeko eta hegoaldeko abokatuen ordezkariak eta Etxarri Aranatzko alkatearen partehartzearekin, euskara erabiltzeagatik sortzen diren defentsa gabeziak salatu nahi izan baitziren.

Batzordeak egindakoaren errepasuaren azkenalderako utzi dituz, neke gehien sortarazi dizkigun baina neurri berean itxaropen gehien eskaintzen dizkigun bi egitasmoak: Euskarazko Ofiziozko Txanda batetik, eta Euskarazko Praktika Juridikorako Eskola bestetik.

Euskarazko Ofiziozko Txanda lanean dihardu 1992ko maiatzetik aurrera. Kanadako Québec-en nolabaiteko aurrekinak dituen egitamu hau, Europan lehenbizikoz martxan jarri da. Euskarazko Ofiziozko txandaren bitartez hiritar euskaldunei bermatu nahi diegu euskarazko defentsa juridikoa, eta gehienetan ezer ere ordaindu gabe. Edozein motatako liskarrik izanez gero, defentsa juridikoa euskaraz bideratuko duen abokatu lortzeko Bizkaiko Abokatuen Kolegioko Idazkaritzan eskatu besterik ez da egin behar. Bestalde, 7 egunetako goardia jarraiekin 38 abokatu txandatzen dira komisaldegietan edota Auzitegietaiko aitorpenetan euskaldun hiritarrak euskarazko abokatu eskatzen

duenean bertara hurbiltzeko. Inkomunikazio kasuetarako ere euskarazko ofiziozko txanda erabilgarria da. Zerbitzu honekin nolabait ere arindu da euskarazko normalkuntza, izan ere Auzitegietan behinik-behin euskarazko itzulpen zerbitzua goardian egotea lortu dugu.

Euskarazko Praktika Juridikorako Eskola, 1993-94 ikasturtean zabaltzea lortu dugu. Aspaldiko idea honen bitartez, abokatu bihurtu nahi duen lizentziatuei (euskarazko) prozedurak nola eraman behar diren, zein tokitan, zein kasutan edota zein paper edo formula erabiliz erakutsi nahi diegu. Euskarazko eskola Kolegioko "Pedro Ibarretxe" Praktika Eskolan integratu egin dugu, eta 1993-94 ikasturtean euskarazko 150 ordu klase emango ditu 15 irakasleekin. Deustuko Unibertsitatearekin azken uneko arazo batzuk izan baditugu ere, ikasketa horiei ofizialtasunik eman nahi ez dielako, alde aurretik erabakita zegoen bezala 1993ko urrian ekin dio lehen klaseak emateari, eta bete-beharreko baldintza izango da euskarazko ofiziozko txandan izena eman ahal izateko.

Badakit hainbat gauza ahaztu zaizkidala, eta beste batzuei duten garrantzia baino eskaxagoa eman diedala, barkatuko didazue, lerro labur hauetan gainbegirada arin bat ematea besterik ez dut nahi izan eta. Atzera begira ibili bagara ere, nira azken lerroak aurrera begira luzatu nahi nizkizueke, hona hemen:

Bizkaiko abokatuen Euskara Batzordearen egitekoa: aurrera begira

Orainartekoan egin den bezala, bi arlo nagusi desberdindu nahi nituzke, labor labor; *corpusa* eta *statusa*.

Corpusarekin zer egin? zenbait gauza jadanik egin badira ere (UZEIko hiztegigintza, Unibertsitateko testu juridiko eta apunte batzuen itzulpena, euskarazko formularioen bildumak, HAE Eeko eskuliburua, lege eta araugintzako itzulpen sistematikoa, Auzitegietako Itzulpen zerbitzua ezarri...) gauza asko ditugu egiteko oraindik ere. Euskara Batzordeak egiteko guzti horiei heldu ezin dakiena badaki, eta hortaz egiten diren lanak bizkortzen eta laguntzen saiatuko da. Baina horrekin batera, honako galdera hau luzatu nahi die euskarazko corpus juridikoa lantzen diharduten guztiei: noruntz abiatu nahi dugu? Euskarazko itzulpengintza juridikoaren bideak jarri behar dizkigu helmugak edo ez ote litzateke bestelakorik bide egokiagoa? Gure uste apalean testugintza juridikoa eta terminologia juridikoa itzulpengintzaren bidetik sortzearekin jai dugu. Behin baino gehiagotan Batzordeko bileretan mahaigaineratu den hau aipatu nahi nuke: Euskal Herriko corpus juridikoa lantzeko *plangintza* serio eta oso bat beharrezko dugu, Plangintza horren arabera itzulpengintza alde batera utzi beharko litzateke eta testugintza propioaren bidetik abiatu; lehenbizi jarri (adibidez, testu juridiko garrantzitsuenak hasi) eta Zuzenbide Fakultateetarako testuak behar baditugu ez ekin gaztelarazkoen itzulpengintzari, baizik eta Euskal Herriko erabiliko diren testu juridiko propioak sortzeari, beti ere osotasunezko ikuspegiarekin landuak (adibidez, zenbait hitzek zuzenbide zibilean eta zuzenbide penalean adiera desberdinak izaten dituztenean, identifikatuz eta hitzen karga juridiko osoa aztertuz), horretarako frantziar sistemako terminoen karga semantikoa alboratu behar badugu ere, hori erabaki eta lan egin. Guzti horretarako euskal guneak (administrazio elebakarrak, Epaitegi eta Auzitegietan zirkuito euskaldunak, euskaraz funtzionatuko duten abokatu bulegoen

indartzea, e.a....) bizkortu egin behar dira.

Pentsa dezagun arazo hau ez dela Euskal Herriarena bakarrik, frantzierak adibidez Quebec-en zuzenbide anglosaxoiari irtenbideak eman behar izan dizkio eta lortu du Plangintza sistematiko baten bitartez; aldeak-alde gurean ere Plangintza oso bat beharrezkoa dugu. Plangintzarik gabe normalkuntza terminologikorik nekez.

Estatusari dagokionez Euskara Batzordeak bi helburu jarri ditu aurrera begirako egitekoen artean: batetik Botere Judizialari buruzko Lege Organikoaren 231. artikulua-ren aldaketa, eta euskara Justizi Administrazioan normaltzeko plangintza baten eskakizuna. Lehen helburuari buruz, Euskara Batzordeak inizatiba legislatiborik ez duen neurrian printzipioz ez dago bere esku artikulua-ren zuzeneko aldaketarik, baina badira inziditu dezakeneko gune batzuk, izan ere J.A. Belloch Justizi Ministrari berriak lau haizetara zabaldu du Justizi Administrazioaren pertsonalaren eskumena Autonomi Elkartearen esku utzi nahi duela. Hori horrela gertatuz gero, bi ondorio dakusagu: bait, Botere Judizialari buruzko Legearen zenbait artikulua-ren aldaketa etorri beharko litzatekeela, eta bi, Justizi Administrazioaren pertsonala Euskal Administrazioaren partaide bihurtuko litzatekeela, beraz printzipioz, Hizkuntz Eskakizunen betetzearen beharra ondorioztatu beharko litzaieke. Agertutakoa oinarri juridikorik ez badu ere, "usteetan" oinarritzen baita, Justizian euskararen normalkuntza bultzatzeko Euskara Batzordeak bere esku dagoen guztia hustiratzen saiatuko da.

Baina eskumenak bada edo ez bada, zenbait magistraturen hitz gozoak direla edo ez direla, gauza argia da Justizia Administrazioa murgilduta dagoen zulo elebakar erdaldunetik ateratzeko Plangintza bat behar duela. Hortaz, guk proposamen zehatz batekin hurbildu gatzaizkie Auzitegietako Lehendakariei, hots euskarazko zirkuitoak martxan jartzearen proposamenarekin. Gure ideiarekin muina euskarazko ihardunbide juridikoen espazio sinbokikoarena da, eta berau gauza dadin honakoa proposatzen dugu: maila bereko Auzitegi edo Epaitegi bat baino gehiago dauden tokietan horietatik bat euskaraz lan egitea, funtzionari euskaldunez betetzea. Organu judizial horretan euskaraz sartzen den demanda idatzi bat euskarazko tramitazioa jasoko luke eta Epailearengana iristean ere euskarazko Epaia jasoko luke.

Idea honen inguruan zenbait bilera izan ditugu Auzitegietako ordezkariarekin eta arazo batzuk ikusten bazaizkio ere aztertze prozesuan dago, beraz aurrerapausu bat bada beti ere martxan jartzea lortzen baldin badugu.

Euskara Batzordeak egindakoa zein aurrerantzean egin nahi duena, Bizkaiko Abokatuen Kolegioan asteazkenero goizeko 8etan hasitako bileretan eztabaidatzen du. Jurista euskalduna bazara esaterik ez dago ateak zabalik ez dituzula, bertan lankideak bilatzeaz gain lagunak ere aurkituko dituzula. Eta honekin bukatzera noa, beti ere, juristo esatea dagokigun honakoarekin, bertan jasotako erizpideak zuzenbidean hauek baino egokiago funtsatuak leudekeen beste batzuen mesedetan nireak jarriz. Mila esker

Iñigo Urrutia Libarona

Bizkaiko Abokatuen Euskara Batzordeko kidea